

noaua



400 KILOKO ERRONKA

Iurgi Mendiluze, Imanol Zaldua, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume San Ixidro eguneko giza proban lehiatuko dira / 8 or.

ARGAZKIA: NOAUA



ÓTEIZA MUSEOA

Bi jarduera, Rikardo Arregiren hitzaldi ezagunaren 60. urteurrenean / 09




NOAUA

Eguzkia lagun, jendetza batu zen aurreko igandean Andatza inguruan / 14



NOAUA

'Züek heben' erakusketa zabaldu dute Aginagako eliza zaharrean / 15



PAMIELA

Igande honetan, Nahia Intxaustiren errezitaldi musikatua Sutegin / 22



Turkia

IRTEERA 2026ko iraila

NOAUA
BIDAIAK

Noaak gidatutako talde bidaiak. Lasarte-Oriatik irtenda.


943 37 36 13 · info@noaoua.eus · Hipodromo Etorbidea, 10 · Lasarte-Oria

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, NOAUA! eta udaletxean aurkituko dituzu.

Deskargatu ezazu www.noaoua.eus webgunetik edo eskaneatu QR kodea zure mugikorrarekin!

TREN ETA AUTOBUS ORDUTEGIA

25/26




noaoua

Euskararen eta artearen Usurbil

Rikardo Arregiren oihartzuna, 60 urte geroago

Maiatzak 15, 19:00 Sutegin

Film emanaldia: "Oteiza 14 apostolu"

Solasaldia: Oskar Alegria (filmaren zuzendaria) eta Jaione Apalategi (Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidentea)

Sarrerak (6 €*): usurbilkultura.eus
*4 € Noaoua!-ko bazkideentzat

Maiatzak 22, 18:00 Sutegin

Film emanaldia: "Zutik"

Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia: Ainara Mendiola (filmaren zuzendaria), Ismael Manterola (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabel (EuskaGintzaren Kontseiluko idazkari nagusia)

Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo

Gonbidapenak: usurbilkultura.eus




Elikaduraren zaintzaz, 'Ongizatearen Plazan'

Denok ondo bizitzea sustatze-ko, Gipuzkoako Foru Aldundiak eskualde mailako "Ongizatearen Plaza" antolatu zuen Herri udalarekin batera apirilaren 29an eta 30ean aipatu udalerraren erdigunean. "Gazteen ongizatea, nahi ez den bakardadea, osasuntsu zahartzeko ariketa fisikoa, buruko osasuna, teknoadikzioak, elikadura jasangarria, migratzaileen inklusioa, teknoadikzioak

eta norbere gorputzaren jabe-kuntza izan" zituzten mintzagai, besteak beste. Hitzorduak herri ordezkari izan zuten. Ziklo honen lehen ekitaldiatiko batean parte hartu zuen Jakoba Errekondo usurbildarrak. Paisajista, agronomoa eta agroekologian adituak, elikadura arduratsu eta jasangarriaren gakoak azaldu zituen, ondorengo solasaldia gidatu aurretik.



Bideo irudiak ikusteko, eskaneatu QR kodea telefonoarekin.

Garbigune mugikorra, Zubietatik Txokoaldera

Zubietan izan ostean, maiatzaren 7an Txokoaldera lekuz aldatuko du Udalak garbigune mugikorra eta hilaren 14an Santuenera.

Bestalde, Udalak maiatzaren 10ean igandea bilduko du berriz ere errefusa, bi aste behin egin ohi duen moduan.

1952an jaiotakoek topaketa, Andatza tabernan

Aurreko asteetan iragarri dugun moduan, 1952koak larunbat honetan dira batzekoak, eguerdiko 14:00etan Andatza tabernan (Egurtzegi egoitzako jantokian). Hori bai, izena alde aurretik eman behar zen. Hauxe da harremanetarako luzatu zuten telefono zenbakia: 620 516 715 (Javier).

1960ko bazkarian izena emateko epea itxtear da

1960. urtean jaio zirenetako batzuk bazkari bat antolatu dute. Maiatzaren 23an elkartuko dira, eguerdi partean, Atxega jauregian. Izen-ematea maiatzaren 10era artekoa izango da, telefono zenbaki hauen bidez:

- Mila: 670 906 417.
- Marije: 676 855 612.

"63an jaiotakoak bazkaria egingo dugu elkarrekin"

"63koa bazara eta etorri nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan: (667296328, Jone) edo (690346480, Pili). Animate!"

- Noiz: Maiatzaren 16an, larunbata, eguerdiko 14:00etan.
- Non: Atxega jauregian.
- Izena emateko azken eguna apirilaren 24a zen berez.



Argitaratzailea:
Noaua Kultur Elkarte
Bordaberri 3, Eguzkitzaldea
20.170 Usurbil
943 360 321
elkartea@noaua.eus

Elkarteko lehendakaria:
Ugaitz Agirre.
Aldizkariko koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Kudeatzailea:
Alaitz Aizpurua.

Erredakzio Batzardea:
Aritz Lasarte, Asier Gonzalez de San Pedro, Imanol Ubeda.
Diseinua: Goienna.
Publizitate arduraduna:
Ane Ibargoien.

Tel.: 943-360 321
publizitatea@noaua.eus
Banatzalea:
Iban Maribalar.
Lege Gordailua: SS-668-96.
ISSN: 1136-6818.

Tirada: 3.050 ale.
Imprimategia:
Antza inprimategia. Zirkuitu ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.
Harremanetarako:
erredakzioa@noaua.eus



Gipuzkoako Foru Aldundia



Usurbilgo Udala

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA

IRITZIA



ALAZNE ARRUTI BENGOETXEA

Presarena

Paradoxikoa izan arren, etenik gabeko eduki azkarren kontsumorako sare sozial batean harrapatu nau Alba Lezedukisortzailearen mezuak: Presa ere, pobrezia mota bat da. Postontzi hori baten gainean daude idatzita hitzak. Eta une batez geldiarazi nau pentsakor pantailaren aurrean. Noiz idatzi ote nuen azken eskutitza? Noiz hartu ote nuen tarte lasai bat, paperean niri zuzendutako mezu bat irrikaz irakurtzeko? Noiz baztertu ote dugu patxada gure egunerokotasunetik? Oporretan bakarrik baimentzen diogu tarte bat geldotasunari?

Esango nuke, batzuetan oporretan ere kostatzen egiten zaidala erritmoa jaitsi eta naturaltasunez amain ematea. Kosta, gorputzaldi zein eguraldi eta aldarrearen nahasketari kasu egin eta produktibitate ezean murgiltzea. Kosta, leku eta zapoaren atzetik presati ibili eta etengabeko erabakiak hartu beharri amore ematea, hanka ez sartzearen zama askatzearekin bat.

Astearen nekea gorputzetik askatzeko, yogara joaten naiz astean behin, eta horretarako ere sarri autoa korrika eta presa hartu beharrean imajinatu naiz. Baina hala ere gusura joaten naiz, saioa amaitu, klasekideak agurtu eta ostera autoan sartzerako gorputza alerta jartzen zaidala badakidan arren. Ostera, kanpoan utzitako hodei gris edo ma- muak bertan jarraitzen duten



"Joskintzan barneratzen hasi nintzen iaz".

arren, laguntzen nau gorputzarekin bat egiteko modu horrek.

Gurpil ero berari eragiten diogu denok eta sistemak pobre, otzan, nekatu, estresatu, kontrakturatu, presati, triste... nahi gaitu, produktibo izateko behar beste kontsumitza behartzen gaituelarik.

Maiz, oinak lurrean jarri eta eskuak erabili beharra sentitzen dut, abiada horri ihes egiteko. Baratzean gerriak minberatu, eskuak lurrez zikindu, lorontziak behin eta berriz errebisatu eta txukundu, eguzkiari aurpegia goxatzen utzi, eta arnasa sakonago eta presentego hartzera behartu behar izaten naiz.

Joskintzan barneratzen ere hasi nintzen iaz, eta azkenean ikastaroetan apuntatzen hasi naiz, arreta pantailatik alden du eta bestelako kontzentrazio ariketa batean gehiago murgiltzeko. Taldean esperientzia trukatu eta konfiantza

irabazten ikasi dut. Eta erabaki horri esker, aurtengo Aste Santuan hiru egun eman ditut Saran, bikoteak oparitutako ikastaldian gabardina eder bat josteko aitzakiaz.

Furgetaren patxadan, etxetik gertu baina bete munda batean sentitu naiz. Nirea ez den herri txiki batean lo egin eta esnatzearen patxada sentitu dut. Goizeko eguzkitan kafea edan ostean, oinez egin dut Athora Mantar Ateliera bidea, bide bazterretako loreak eta xoriak antzeman. Eta patxada bera izan nahi nuke bihar goizean ere.

**"NIREA EZ DEN
HERRI TXIKI
BATEAN LO EGIN
ETA ESNATZEAREN
PATXADA SENTITU
DUT"**

Maiatzaren 12ko 'Goazen Kalera', Zubietan

Astearteroko ibilaldi osasuntsuetan hurrengo, maiatzaren 12rako antolatua du Udalak eragile gehiagorekin lankidetzan. Zubietan izango da. Bertako frontoitik abiatuko da 10:30etan. Amaieran, OLH-ko ikasleek prestatutako hamaiketako dastatu ahaliko da. Herri- tar orok parte har dezake, aurrez izena eman beharrik gabe.

1946koak Larrun aldera doaz egunpasa

1946. urtean jaiotakoek egunpasa antolatua dute maiatzaren 25erako. Larrun eta inguruak bisitatuko dituzte. Harremanetarako: 687 706 363 677 342 793.

Errigorako kutxen banaketa egunotan egingo da

Martxoko Errigoraren "Eskutik Eskura" kanpainako produktuak eskatuak dituzuenok adi; asteburu honetan banatuko ditu eta NOAUA! Kultur Elkarrekin, maiatzaren 8an (16:30-19:30 artean) eta 9an (09:30-12:30 artean), Udarregi ikastolaren eraikin gorriko erdiko aretoan.



Udarregin jaso beharko dira.

Inaki Iturgintza
BEROKUNTZA • GASA • AIRE EGOKITUA • ZORU BERO-EMALEA
ITURGINTZA • ENERGIA BERRIZTAGARRIAK
info@inakiturgintza.com • www.inakiturgintza.com
600 024 825

Kima
MASAJE LEKUA
• KIROL MASAJEA
• MASAJE TERAPEUTIKOA
• KOLONAREN HIDROTERAPIA
Nagusia 44, behea LASARTE-ORIA 943 36 61 97

ARRANDEGIA
PELLO
9:00-13:30
ASTEARTETIK LARUNBATARA
PUNTAPAX 7, 650 31 31 91

Formazio saioa, jaietako eraso matxistei aurre egiteko protokoloaz

Sortzen Elkarateak eskainiko du Emakumeen Etxean. Doan izango da baina izena eman behar da aldezturik.

Jai eta aisialdi guneetan eraso matxistei aurre egiteko protokolari lotutako formazio bilera antolatu dute maiatzaren 14an, arratsaldeko 17:30etan Potxoenean. Sortzen elkarreko Sheila Melconek bideratuko du saioa. Informazio gehiago, Kalezarko Pelaioken kokaturiko Usurbilgo Emakumeen Etxean jaso ahal da. Gogoan izan, Melconek aholkularitza psikologikoa eskaintzen du Usurbilgo Emakumeen Etxean. Hurrengo saioak egunotarako ditu finkatuak: maiatzaren 18an, ekai-



Sheila Melcon psikologo feminista.

GUAIXE

naren 1ean eta 15ean, uzta-laren 6an eta 20an, 15:00-19:00 artean. Hitzordua aurrez eskatu behar da, bideotatik: emakumeonetxea@usurbil.eus / 943 377 112.

Emakumeei zuzenduriko formazioa mendi orientazioaz

"Ikastaroaren helburua da emakumeek mendian era seguru eta autonomoan jarduteko beharrezko baliabideak eskuratzera, horretarako naturaren interpretazioa, maparen irakurketa eta iparrorratza erabiltzen ikasteko ezagutza teoriko-praktikoak ahalbidetuz".

Ikastaroa maiatzaren 15etik 17ra izango da. Ostiraleko saioa 17:00-20:00 artean eskainiko da eta larunbat zein igande goizetakoak, 9:00-14:00 artean. Patri Espinarrek elebitan bideratuko du formazioa. Izena eman nahiz informazio gehiagorako, Emakumeen Etxera jo.

Txupinazoaren protagonista hautatu behar da

Maiatzaren 19ra arte, Usurbilgo jai batzordeak eginiko deialdiotan parte har dezakezue:

• Txupinazorako hautagaiak: zuen hautagaitza proposatzeko aukera dago telematikoki kultura@usurbil.eus helbidean edo presentzialki udaletxean, liburutegian, kiroldegian eta Potxoenean jarritako ontzietan.

• Egitaraua diseinatzeko lehia-keta: norbanakoek zein taldeek aurkez ditzakete lanok. Aurten ehun euro gehiagokoa izango da saria, 600 eurokoa hain zuzen. Oinarriak bideotatik eskura ditzakezue: kultura@usurbil.eus 943 371 999 usurbilkultura.eus

Herritarren lekukotzak, "Komunitatetik Heriotzaz" zikloan

Heriotzaren gaia ertz ezberdinetatik jorratzen ari den zikloaren baitako hurrengo hitzordua ostegunean, maiatzaren 7an izango da, 18:00etan Sutegin. "Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean: agur kolektiboak eta komunitatearen babesa" solasaldia gidatuko du Bidegin elkarreko kide Izaskun Andonegik. "Gertuko heriotza traumatikoren bat gazte garaian bizi izandako hiru herritarren lekukotzak eskainiko dira. Halako ezbeharretan agur kolektiboak egiteak eta komunitateak ematen duen babesaren garrantziaz ere arituko dira".

Sagardo Egunerako hiru aste baino ez dira geratzen

Usurbilgo Sagardo Egunaren Lagunak taldeak aurtengo egitarauaren berri eman du.

Maiatzak 24, igandea

- 11:00 Botatzaileen argazkia.
- 11:30 Sagardo Egunaren Irekiera.
- Baserriko zein sagardotegietako sagardoa dastatzeko aukera. Horrez gain, pintxo aukera zabala.
- 15:00 Botatzaileen bazkaria Udarregi ikastolan.
- 17:30-20:00 "Joseto Ta Alayak" elektrotzaranga Usurbilgo kaleetan zehar.
- 18:00-23:00 Emaginen gunere morea egongo da.

'Xelebrekeriak', Arantxa Manterolak bildutakoak

Anastasia, poliglota

Mixerikordian (orain Sutegi dagoen lekuan) bizi zen Anastasiak ba omen zuen bere espezialitatea. Hizkuntzetan iaioa (edo), eta ume kozkorrek horrela eskatzen omen zioten: -Anastasia, Anastasia, egin ezazu parra frantsesez.

-Eta Anastasiak: *Hi, hi, hi, hi!*

-Umeek, berriz: *Anastasia, orain ingelesez*

-Eta Anastasiak: *Hei, hei, hei, hei!*

Horra hor hizkuntza arrotzak ikasteko metodo interaktiboa.

Klik (1970 inguru)

Egun hartan Michelinen arratsaldeko erreleboa zuela ahazteko moduko 'jorna' harripatu du bezperan, eta hor bidali du iloba bere lankide baten etxera, lanera ez dela joango abisatzera.

-Neskatilak: *Osaba ez dela lanera joango gaur.*

-Lankideak: *Zer, ba, gaixo al dago?*

-Neskatilak: *Ez, baino ohetik jaikitzerakoan hankak 'klik' egin omen diote eta ezin ibili.*



Apirilaren 30ean eginiko udalbatzaren osoko bilkura. Udal ordezkariak diru kontuak hartu zituzten ahotan nagusiki.

Ekonomia gaiak, azken osoko bilkuran

Urteko lehen hiruhilekoari dagozkion diru kontuei buruzko argibideak eman, ordenantza fiskaletan zenbait aldaketa txertatu edota Garbitaniari lotutako lankidetzaren hitzarmena berritzea onetsi zuen udalbatzak apirilaren 30ean eginiko osoko bilkuran.

ARITZ LASARTE

Nagusiki diru kontuak hizpide hartuta egin zuten apirilaren 30eko udalbatzaren osoko bilkura. Besteak beste, 2026ko lehen hiruhilekoari dagozkion diru kontuei buruzko argibideak eman zituzten udal kontuhartzaileak. Horrekin batera, epealdi berean, hau da aurtengo urtariletik martxora bitarteko ordainketen batzaz besteko epeari buruzko zehaztasunak ere eskaini zituzten. Finkatua dagoen 30 eguneko tartearen oso azpitik ibili da beste behin Udala, 2026. urteko lehen hiruhilekoan, ordainketak egiteko; batzaz beste 11,62 egun behar izan ditu horretarako.

Iazko eta aurtengo fiskalizazio planak ere ahotan hartu zituzten. Iazkoari dagokionean, haren jarraipena egin eta fi-

nean, udal jarduna hobetzeko bederatzir neurri zuzentzaileak jaso ziren. Haietatik lau amaituak dituzte, beste lau hasita, bat abiatzeko. 2025eko fiskalizazio plana ere prest du Udalak eta horren bidez, udal jardunaren "kontrol planifikatua" bideratu nahi da, "baliabide publikoen administrazio gero eta efizienteagoa lortzeko". Arriskuen zerrenda zehazten du eta horiek baloratzeko irizpideak.

"2026KO 1. HIRUHILEKOAN, ORDAINKETAK EGITEKO, BATAZ BESTE 11,62 EGUN BEHAR IZAN DITU"

Bestalde, kobrazinak diren eskubideen bajak onartzea ere onartu zuen udalbatzak iragan asteke saioan.

Ordenantza fiskalak

Iazko abenduan onarturiko aurtengo ordenantza fiskalen baitan, bi aldaketa txertatzea hasieraz onartu zuten hitzordu berean: batetik, 2023an hasitako bideari jarraiki, ikastaroetako prezioak eguneratzea eta ikastaro berrientzat (skatea,

"ORDENANTZA FISKALEN BAITAN, BI ALDAKETA TXERTATZEA HASIERAZ ONARTU ZUTEN"

OKI edo oreka, koordinazioa eta indarra, emakumezkoen zuzendutako oinarrizko indar entrenamendua eta entrenamendu funtzionala) prezio publiko berriak sortzea. Laster, aldaketok 30 laneguneko epealdian jendaurrean jarriko ditu Udalak alegazioetarako.

Gurasotasun baimenak

Udal langileei lotutako beste erabaki bat ere hartu zuen udalbatzak. Izan ere, gurasotasun baimena hamasei astetik hemeretziara, hiru astez luzatzea onartu zuten aho batez.

Garbitania

Azkenik, "Garbitania Zero Zabor S.L.ri bere udal bazkideekin egin beharreko jardueraren enkarguen araubide juridikoa arautzeko hitzarmena" berri- tzea ere onartu zuen udalbatzak gehiengo osoz, apirilaren 30eko osoko bilkuran, EHBilduren eta PSEren aldeko botoekin. Aurka agertu zen EAJ. Orain arte, hiru bazkide izan ditu Garbitaniak; Astigarragako, Hernaniko eta Usurbilgo udalak. Hitzarmena berritzea erabaki dute, laugarren bazkide bati, Oiartzungo Udalar bertan sartzea ahalbideratzeko. Prozesu horretan, aurrez eman dira hainbat urrats; horien artean, iazko abenduaren 10ean azken udal horrek Garbitaniako bazkide izatea eskatu zuen. Egun gutxira, Garbitaniak eskaera hura onetsi zuen. Ondorioz, Oiartzunek eginiko 130.000 euroko ekarpenagatik kapital handitzea eman eta 62 partizipazio berri sortu ziren. Horiek eskuratzeko lehentasuna jada kide zirenean zen. Usurbilgo udalbatzak, ordea, uko egitea erabaki zuen, Oiartzungo Udalak bere egin zituzten. Gero, martxoko bilkura nagusian, "Estatutuen aldaketa onartu zen: bazkideen osaketa eguneratu eta bitarteko propio izendatu; aipamen legala eguneratzea, eta kapital handitzea".

EH Bilduren bilgunearen irekiera ostiralean

Maiatzaren 8ko ekitaldi berean, mahai politiko berria aurkeztuko du Usurbilgo EH Bilduk.

"Usurbilen bat egin" aldarri-pean, deialdi hirukoitza egin du Usurbilgo EH Bilduk ostiralerako, maiatzaren 8rako 19:00etan. Puntapax 6ko lokalean kokaturiko bilgunea inauguratuko dute. Hitzordu hori baliatuko du koalizioak berritua duen mahai politikoak aurkezteko. "Gaztetasuna eta esperientzia uztartzen dituzten zazpi kidek osatzen dute", ohar bidez Usurbilgo EH Bildutik jakinarazi dutenez. "2025eko otsailaren 9an Iruñean egin zen EH Bilduren III. Kongresuan alderdiaren egiturak berritu ostean" eman

dute urrats hori udalerrira horetan ere.

Horren haritik, honako herrikideek osatuko dute aipatu mahai politikoak, koalizioak aurreratu dutenez: Aritz Aranburuk, Lur Etxeberriak, Kristina Bernalek, Oihan Errekondok, Xuban Zubiriak, Agurtzane Solaberrieta alkateak, Ander Mangasek, Amaia Añorgak, Luken Arkarazok eta Aitor Zabaletak. Manex Zubiria izango da mahai horretako arduradun politikoak. Talde berrituaren aurkezpen ekitaldian izango da Gipuzkoako EH Bilduren ordezkari bat ere.



Puntapax 6an kokatua dago, Usurbilgo EH Bilduk irekitzearen duen Bilgunea.

Afaria

Azkenik, arratsaldea borobiltzeko afaria antolatu dute Aitzaga elkarteak. Otordurako txartelak Aitzaga tabernan bertan eskuratu ahaliko dira 20 eurotan, ikasleek eta langabetuek 12 euroren truke erosi ahaliko dituzte. Afalostean, "historia kantari" musika emanaldia programatu dute. "Usurbilen bat egin" lelopean, EH Bilduko komunitateko

kideak bertan parte hartzera" gonbidatu dituzte.

**"GAZTETASUNA
ETA ESPERIENTZIA
UZTARTZEN
DITUZTEN 7 KIDEK
OSATZEN DUTE
MAHAI POLITIKOAK"**

"Irmoki salatzen dugu sailburuaren erabakia"

Osasun Sailburuaren azken erabakia bertan behera uztea galdegin dute Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformek.

180 egun baino gehiago eba-kuntza baten zain direnei, eremu pribatua artatzeko aukera eskainiko zaiela iragarri du Eusko Jaurlaritzaren osasun sailburu Alberto Martinezek. Erabaki hori irmoki salatu du ohar bidez, Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformen Koordinakundeak. "Neurri honek ez ditu arrazoi estrukturalak lantzen, ez du osasun publikoa indartzen", eta, gainera, bilgune horren esanetan, "osasun sistema publikoaren pribatizazio pro-

gresiboa are gehiago zabaltzen du". Ondorioz, "erabaki honek eredu publiko-pribatu normalizatu bat sendotzen du, urte luzez Osakidetza ahultzen eta baliabideak osasunaren kontura negoziario egiten duten enpresetara bideratzen aritu dena". Testuinguru honetan, "iragarritako neurria berehala bertan behera uztea, eta pribatizazio-dinamika amaitzea" galdegin dute aipatu herri plataformek. Horrez gain, "gardentasun osoa" eskatu dute, "kontratuen, zenbate-



"Osakidetza indartzeko premiazko plana" galdegin dute herri plataformek.

koen eta deribazio-irizpideen inguruan", "Osakidetza indartzeko premiazko plana" abiaraztea nahi dute eta "benetako negoziarioa" sustatzea "sindikatu guztiekin". Azkenik, "herritarren parte-hartze eraginkorra" bultzatzea nahi dute "osasun sistemari buruzko erabakietan. Osasuna eskubidea da, ez negoziarioa".

**"NEURRIA
BEREHALA BERTAN
BEHERA UZTEA ETA
PRIBATIZAZIO-
DINAMIKA
AMAITZEA
GALDEGIN DUTE"**



lurgi Mendiluze San Ixidro eguneko giza proba lehiarako entrenatzen. ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO

"Giza proban, 400 kiloko harria mugitu beharko dugu"

IURGI MENDILUZE GIZA PROBAKO PARTE HARTZAILEA

Herrian giza probaren tradizioa bizirik mantentzeko elkartu zen talde bat, eta orain, San Ixidro egunean lehiatuko dira Dema plazan. Binaka aterako diren arren, bakarkako lehia izango da, eta herrikideak sortuko den giroaz gozatzea espero du lurgi Mendiluzek.

ASIER GONZALEZ DE SAN PEDRO Nola hasi zineten giza proban parte hartzen?

Aspalditik dator. Taldekako giza proban hasi ginen, eta gerora, taldea osatzeko arazoak izan genituen. Geldi egon ginen, eta San Ixidro eguneko lehia bururatu zitzaigun, eta laukote bat elkartu ginen. Geroztik, hemen gabilta. Nirekin batera Imanol Zaldúa, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume lehiatuko dira.

Nolakoa izango da San Ixidro eguneko lehia?

Bakarkako lehia izango da. Binaka aterako gara, baina bata bestearekin ez dauka

zer ikusirik. Bi harri izango ditugu lehia egunerako, eta plaza bitan banatuta egongo da. Lehiakide bakoitzak bi harriekin egin beharko du proba, hamar minutu egin beharko ditu harri bakoitzarekin.

10 minutuko bi txanda izango dira, eta plaza gehien egiten dituen izango da

**"USTE DUGU
40 MINUTU ETA
ORDUBETE
BITARTEKO LANA
IZANGO DELA"**

txapelduna. Gutxi gorabehera 40 minutu eta ordubete bitarteko lana izango dela uste dugu, eta horrela jendearentzat ere ikusgarriagoa dela uste dugu.

Zenbat pisatzen du mugitu behar duzuen harriak?

400 kiloko harria mugitu behar dugu.

**"MOMENTUZ,
EZ GARA
INOLAKO
TXAPELKETETARA
JOAN LEHIATZERA"**

Eguraldiak eragin dezake lehiatzerako orduan?

Eguraldi txarra edo euria baldin bada, nekezagoa da harria ibiltzea. Plaza honek (Dema plazak) duen berezitasun bat harriak lurarekin hartuta daudela.

Orduan, bustitzen baldin bada, harriak gehiago mugitzen dira, guk tiratu behar dugun harria gehiago itsasten da lurrrera, gu ere gehiago irristatzen gara, eta orduan, arriskutsuagoa eta zailagoa da harria mugitzea.

Herrian San Ixidro egunean lehiatzeak presioa suposatzen du zuentzako?

Herrian egin nahi genuen, giza probaren inguruan hitz egin zedin. Nik uste egun polita dela bai helduentzako bai haurrentzat sortuko den giro hori bizitzeko.

Nolako harrera izan du herrian? Jendea gerturatu zaizu galdetzeraz giza probaren inguruan?

Horrela galdezka zuzenean ez. Baina, entrenatzen ikusten gaituztenean galdetzeraz hurbiltzen dira. Jendea horrelako poz bat pizten zaio San Ixidro egunean lehiatu behar garela esaten diegunean.

Eta umeez probatu ahal izango dute egunean bertan?

Ez, berez ez dugu horrelakorik pentsatu. Egia da Gipuzkoako Herri Kirol Federazioak bai antolatzen dituela horrelako gauzak. Berdina ez den arren, eskolaz-eskola ibiltzen dira umeez ere probatu dezaten, eta tradizio honekin jarraitu dezaten.

Herri kiroletaz hitz egin duzu, giza proba bakarrik egiten duzue ala besteren bat ere egiten duzue?

Ez, momentuz herri kiroletan giza proban bakarrik gabilta, eta gainera, maila honetan bakarrik. Momentuz behintzat, ez gara inolako txapelketetara edo antzekoetara joan lehiatzeraz.



Oskar Alegriak zuzenduriko 'Oteiza 14 apostolu' filma eskainiko dute Sutegin.

Rikardo Arregik eginiko hitzaldiaren 60. urtemuga

Urteurrenaren harira, NOAUA! Kultur Elkartek eta 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak zenbait ekitaldi antolatu dituzte hurrengo bi ostiraletarako.

Remigio Mendiburuk frontoi atzean ondutako Udarregi bertsolariaren omeneko eskultura 60 urte betetzear da. Izan ere, 1966ko maiatzaren 22a inauguratu zen. Ekitaldi hartan Rikardo Arregik eskultura ondoan eskainitako hitzaldi gogoangarria eskai-

ni zuen. Honenbestez, sei hamarkada horiek bi aste barru beteko dira.

Urtemuga haren harira, NOAUA! Kultur Elkartek eta 650 Usurbil Bizi herri egitasmoak zenbait ekitaldi antolatu ditu hurrengo bi ostiraletarako.

Maiatzak 15, ostirala

• 19:00 Oskar Alegriak Jorge Oteiza Fundazio Museoaren Danok Oteiza egitasmoaren baitan ondutako "Oteiza 14 apostolu" film emanaldia Sutegiko auditorioan. "Filmak 45 minutu irauten du, eta Japonian, Txilen, Londresen, Parisen eta Arantzazun filmatua da. Hala, Oteizaren pentsamenduari buruzko irakurketa garaikide bat proposatzen du, askotariko ahots eta begiradetatik abiatuta".

• Segidan, solasaldia filmeko zuzendari Oskar Alegriarekin eta Jorge Oteiza Fundazioko patronatuko presidente Oskar Alegriarekin. Hitzordu hone-tan, "Jorge Oteiza Fundazio Museoak sustatutako Danok Oteiza komunitate-proiektua aurkeztuko da".

• Sarrerak: 6 eurotan aurrez usurbilkultura.eus webgunean edo NOAUA! Kultur Elkartearen egoitzan. NOAUA!ko bazkideek 4 eurotan, kultur elkar-tearen egoitzan.

Maiatzak 22, ostirala

• 18:00 "Zutik" film emanaldia Sutegiko auditorioan. Rikardo Arregik Usurbilen 1966an emandako hitzaldi gogoangarria oinarri hartuta Maluta

Filmsek ekoiztutako film laburra, "euskaltzale andoaindarrak euskal gizartean utzi zuen arrastoa azaltzeko, gaur egun, tamalez, orduan esandakoek duten gaurkotasunaz jabetu gaitezen".

• Segidan, Naiz Irratiak zuzenean gidatutako solasaldia. Bertan parte hartuko dute Ainara Mendiolak (filmaren zuzendaria), Ismael Mantrolak (Arte Ederren Fakultateko dekanoa) eta Idurre Eskisabelek (Euskalgintzaren Kontseiluko idazkari nagusia).

• Itxiera, Remigio Mendibururen eskulturaren emango zaio. Parte-hartzaileak: Maialen Lujanbio eta Jakoba Errekondo.

• Sarrerak: gonbidapenak doan, usurbilkultura.eus platafor-man.

• Antolatzaileak: NOAUA! Kultur Elkartea eta 650 Usurbil Bizi.

"MAIATZAREN 15EAN, 'OTEIZA 14 APOSTOLU' FILMA ESKAINIKO DUTE SUTEGIN"

"Maiatzaren 16an, Txirikordaren bigarren urteurrena ospatuko dugu"

Txirikordaren 2. urteurrenako ospakizuna maiatzaren 16an izango da. Idatzi honen bidez, Txirikordako bizilagunek herritarrak gonbidatu nahi dituzte urteurren festara.

"Lagun hori: maiatzaren 16an Txirikorda Belaunaldiarteko Etxebizitza Komunitarioaren

2. urteurrena ospatuko dugu. Aurtengoan ere egitarau ederra osatu dugu: txokolatada, burruhandiak, toka txapelketa, The Hastelehen's musika taldea... izango ditugu. Etorri gugana eta gozatu giro ezin hobean!".

Ospakizunak arratsaldeko 17:00etan hasiko dira.

Lanbide Heziketan aurrematrikulazioa osatzeko garaia iritsi da

Aurrematrikulatzeko epeak maiatzaren 22ra arte iraungo du. Zubieta Lanbide Eskolak erdi eta goi mailako zikloak eskaintzen ditu, eta horiekin batera, espezializazioak edota ikastaroak. Harremanetarako:

- 943 364 600
- lhusurbil.eus

Atalluko Oinarrizko Lanbide Heziketak aldiz, ile-apainketa eta estetika zein sukaldaritza eta jatetxe titulua eskuratzeko ikasketak eskaintzen ditu. Informazio gehiagorako:

- 943 360 465
- lhi@usurbil.eus
- olh.usurbil.eus

Antxeta
TABERNA
egunero irekitzen dugu!
eguneko menua · asteburuko menua
oilasko erreak, ogitarkekoak, razioak..
paellak enkarguz!
943 54 43 12 Zubiarenean 6, Usurbil.

943 361182
EROSKI/city
kale Nagusia 10, USURBIL

Zuen iragarkia hemen
publizitatea@noaua.eus
747-486-835

Otar-Goxo
Elkagaiak
Zubiarenean 2, 943 36 55 81

Tren-geltoki inguruko pasabide berriua erabilgarri

Etxealdiako zubi berriua ireki zuten apirilaren 29an. Tren-geltoki berriaren inguruko pasabidea zabalik da ordutik.

Ia bi urteren ostean, zabalik da trenbidea zeharkatzeko pasabide arriskutsua ezabatu duen Etxealdiako zubi berriua, irisgarri eta segurua. Aurrekoak ez bezala, oraingoak N634 errepidea eta trenbidea zeharkatuko ditu. Igogailuak ditu, gainera, Atallu nahiz tren-geltoki inguruko industrialdera jaitsi nahiz bertatik zubira igotzeko, eskailerekin batera. Geltokietako nasetara jaisteko igogailu bana ere izango du pasabide berriua horrek era-

biltzeko moduan laster. Etxealdiako zubi berriua irekita, Txaramuntoko behin-behineko zubia itxi eta kendu dute jada. Orain, "eremu horretako urbanizazio lanekin jarraituko du Euskal Trenbide Sareak (ETS): zati hori falta zaie tren geltokitik Atxega jauregirainoko eremu guztia berrituta uzteko. Era berean, pasealeku guztiko argiteria berritu dute", Udaletik azaldu dutenez. Etxealdiako zubi berria "bi igogailuak martxan jarrita eta



Etxealdiako zubi berriua N634 errepidea eta trenbidea zeharkatzen ditu.

irisgarritasun baldintzak beteta" ireki dute ia bi urteren ostean, ETS-k hamar hilabeteke tartean amaitzea aurreikusia zuen arren. San Esteban kalea ere guztiz zabalik da. "Zenbait erremate kalea ireki ostean egin ditu udalak. Horrez gain, aldapan dauden bankuak egokitu dira, erosoagoak izan daitezzen".

"BI IGOGAILUAK MARTXAN JARRITA ETA IRISGARRITASUN BALDINTZAK BETETA IREKI DUTE"



Tren-geltoki berriaren inguruak duen itxura, pasabide berrititik.



Lau igogailu izango ditu tren-geltoki inguruak; bi, jada, martxan dira.



Tren-geltoki berriko nasetara jaitsi nahiz igotzeko sarbidea itxita dago oraindik.



San Esteban kalea ere guztiz zabalik da, azken lanak amaitu ostean.



TaPuntu kooperatibak Beterri Saretuz eskualdeko elkarlan-sarean hartzen du parte. Argazkian, TaPuntuako lantaldea.

TaPuntu: "Ekonomia Sozial Eraldatzaileak balio pilo bat ditu"

Arkaitz Sukuntza Alkorta TaPuntu kooperatibako bazkide sortzaileetako bat da. TaPunturen jarduna azaltzeaz gain, Beterri Saretuz elkarlan-sareari buruzko azalpen argigarriak eskaini dizkigu.

Ta Puntu, zein da zuen jarduna eta zer egiten duzue zuen egunerokoan?

Hamar urte daramatzagu, eta zeharo aldatuz joan da. Gaur gaurkoz, hiru eskaintza ditugu. Lehenengoa, komunikazio estrategikoa da; hau da, proiektu baten bidelagun izatea eskaintzen dugu: pentsatu nola komunikatu dezakeen behar duen helburu hori lortzeko, eta horren barruan, badaude ikus-entzunezkoak, webguneak, euskarri fisikoak eta kanpaina batek behar dituen gauza horiek guztiak diseinatu eta egiten ditugu.

Bigarren esparrua formazioa da, eta bidelaguntza bat bezala ulertzen dugu. Enprekin egoten gara, eta saiatzen gara haiek ahalduntzen hainbat gauzetan, normalean komunikazioaren munduan dauden alorretan, baina denetarik ematen dugu. Askotan tutore gisa jokatzeko dugu, eta prozesu batean laguntzen diegu.

Eta hirugarrena, interkooperazioa da, eta justu horretan oinarritzen da Beterri-Saretuzen

partaidetza. Interkooperazioa da sinesten dugula besteekin proiektuak egin eta sortu ditzaigekula. Gure balio berdinak partekatzen dituzten beste proiektu batzuekin elkartzen gara, eta proiektuak sortzen ditugu, nolabait, gizartean edo lurraldean eragin positibo bat izan dezaketena.

Nola islatzen dituzue Ekonomia Sozial Eraldatzaileak zuen eguneroko praktikan?

Ekonomia Sozial Eraldatzaileak balio pilo bat ditu: interkooperazioa, erantzukidetasun soziala, lurralde garapena, parekidetasuna, parte hartzea, euskara, inklusioa eta taldearen zaintza. Oso gai potoloak dira, baina egia da praktikan tatutuak izango bagenu gisan dela. Gure balioak dira. Hasieratik sinistu dugu ondokoa ez dela lehiakidea, ondokoarekin elkartu gaitzkeela. Horrek barkadetik ateratzen gaitu. Badirudi enpresak lehian daudela, baina batzuetan ez. Batzuetan beste enpresa batekin

elkartuta proiektu hobeak egin daitezke, eta hori da funtsean. Ekonomia ez dago zentroan eta pertsonak garrantzitsuagoak dira, pertsonen ongizatea eta pertsona gisa zaindua izatea. Orduan, hori praktikan jartzen saiatzen gara. Saiatzen gara esaten dut, teoriarik gauza bat delako eta praktikan jartzea zailagoa da. Eredu oso kapitalista eta bertikalean bizi gara, eta gu dena horizontalagoa egiten saiatzen gara.

Formakuntzetan gazteei beste enpresa eredu batzuk daudela erakutsi nahi diegu, eta ez dutela SL batera joan behar.

Zer ematen diozue zuek Beterri Saretuzi?

Elkartu egiten gara, eta elkartze horretan urtero erabakiak hartzen dira. Elkar entzun, proiektu desberdinak elkarrekin planifikatu, ikasteko esperientziak eragin, gure balioak praktikan jartzeko, eskualdean eragiteko. Orduan, urtero erabakiak hartzen ditugu horiek aurrera eramateko.

Eta sareak zuei zer ematen dizue?

Guri sareak komunitate bat ematen digu. Komunitate baten parte gara, ez gaude bakarrik, ez gara ardi beltzak eta gure balioak dituzten beste batzuk badaude eta haiekin eragin dezakegu, lurraldean egin eta beste mota batzuetako proiektuak aurrera atera daitezkeela eta horretan sinistea.

Etorkizunera begira, zein erronka edo zein aukera ikusten dituzue?

Gure erronka balio horiek ditugunak gehiago izatea da, jende gehiagok ezagutzera haur errealitate bat dela eta posible dela jakitea.

Beterri Saretuz sarearen baitan kokatzen zarete. Zer helbururekin sortu zen?




Beterri Saretuz eskualdeko enpresa, kooperatiba eta eragile ezberdinek osatutako elkarlan-sarea da. Helburua da tokiko garapen ekonomiko eta soziala ikuspegi eraldatzaile batetik sustatzea, Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri hartuta. Hau da, jarduera ekonomikoa pertsonen eta komunitatearen zerbitzura jartzea, eta elkarlanean oinarritutako lurralde eredu bat indartzea.

Beterri Saretuz


Beterri Saretuz-ek eskualdean Ekonomia Sozial Eraldatzailea oinarri duten eragileak ikusarazten jarraituko du datozen hilabeteetan, hedabide lokalen bidez eta elkarrizketa sorta honen bitartez. Helburua argia da: bertan badagoela bestelako ekonomia eredu bat erakustea, eta komunitatearekin lotura estuan diharduten proiektuak ezagutaraztea.

Eguna eta gaua

Begiratu paisaia honi eta markatu egunetik gauera aldatu den guztia. Desagertu diren gauzak alde batera utzita, zer agertu da gauetan? Bederen, zortzi elementu dira.



Egilea: Garbiñe Ubeda. Ekoizlea: TOKIKOM. Soluzioak 20. orrialdean.



Gaueko dominoa


Bete itzazu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta ageri ohi diren sei gauza sartu behar dituzue fitxetan, komeni denean:



ilargia izarra armiarma planeta teleskopioa saguzarra

Gaueko

Izaki mitologiko liluragarri bat da Gaueko, baina jendeak beldur handia dio, iluntasunean bizi delako eta gauz hura baino nagusiagorik ez dagoelako. Dena esan behar bada, zehazki nolakoa den ez daki inork. Zure ustez, zer forma du? Marraztu ezazu laukian.



Bete itzazu sudoku honen hutsuneak GAUEKO hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (G, A, U, E, K eta O). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela lerro, zutabe eta area bakoitzeko.



Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia, eta gauarekin zerikuria duen esaera zahar bat agertuko zaizu. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa. Bide batez, berehala asmatuko duzun esaera hori goiko marrazkiari lotuta dago, eta polit-polit margotu behar duzu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA



Aurreikusitakoa baino Andatza Egun jendetsuagoa

Eguraldiak zapuztu zezakeela iragarri arren, Andatza Egun eguzkitsua ospatu zuten maiatzaren 3an.

Aurreko egunotako eguraldi iragarpena bestelakoa izan arren, azkenean, Andatza Egun eguzkitsua ospatu zuten maiatzaren 3an. Topaketa jendetsua izan zen beste urte batez, babesleku inguruan. Jan-edanak nahiz musikak giroturiko goiz pasa horrekin bat egin zuten belaunaldi askotako herriki-deek; gazteek, familiek, lagun kuadrillek... Andatza Eguneko antolatzaileak ere pozarren ziren, bestelako eguraldi iragarpena izan arren, aurreikusi baino jendetsuagoa izan

delako aurtengo edizioa. Eskertza mezua helarazi nahi izan zieten Andatzara igotako guztiei.

Nahieran igo ziren herriki-deak. Izan zen bidehori taldean egindakorik; horien artean, Zirimararak antolaturiko familia planarekin bat egindakoak. San Estebango plazatik elkarrekin abiatu eta jolasean egin zuten bidea. Helmugan, babesleku inguruko ospakizun giroan murgildu ziren eta haiekin atera zuten orrialde honetan atxikitako herri ar-



Herritarren topaleku bilakatu zen Andatzako babesleku ataria.

gazki jendetsua. Irudi horren bidez, usurbildarrek ere bat egin dute Gipuzkoa mailako "50 jai, 50 tontor" ekimenarekin. Izan ere, urriaren 4an Lazkaon egingo den kilometroak jaialdiak 50 urte beteko ditu. Mende erdi horren harira, antolatutako mendi ibilaldien bidez, herrialdeko tontorretan herri argazkiak ateratzeko deialdia egina dute

antolatzaileek. Usurbilgoa, aipatu moduan, hilaren 3ko Andatza Egunean atera zuten.

ZIRIMARAKOAK SAN ESTEBANGO PLAZATIK ABIATU ZIREN. JOLASEAN EGIN ZUTEN BIDEA



"50 jai, 50 tontor" ekimenaren aldeko herri argazki jendetsua atera zuten. Argazkia tamaina handiagoan noaua.eus atarian eskura dezakezue, gainerako irudiekin.



Zirimararen familia planeko belaunaldi gazteena.



Jan-edanak eta musikak girotu zuten Andatza Eguna.



'Züek heben' erakusketa astelehenean zabaldu zuten Aginagako Eliza Zaharrean. Igandera arte egongo da ikusgai.

"Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erakusgarri"

Aginagako Eliza Zaharrean aurkituko duzue egunotan: 'Züek heben' izeneko erakusketa. Euskal Herriko Atlas Geopoetikoaren erakusgarri da. 2012an, Zuberoako Hebentik elkartek hainbat egonaldi egin zituen zazpi herrialdeetan barrena. Tartean, Aginagan. Bildutako hitzen, soinuen eta argazkien erakusgarri da egunotan Aginagan ipini duten erakusketa.

IMANOL UBEDA

Atlas geografikoak, atlas politikoak ezagunak ditugu. Atlas geopoetikoaren berri ez genuen, ordea. Mixel Etxekopar musikari zuberotarra da ekimen honen sustatzaileetako bat. 2012an hasi ziren egitasmo honekin eta 2017an lehen liburukia plazaratu zuten. Pagola, Arnegi, Aginaga, Hendaia, Barkoxe, Iruñea eta Berriena esperientziak jaso zituzten liburu-CD euskarrian. Hitzak, soinuak eta argazkiak dira atlas honen osagai nagusiak.

Lan horretan oinarritutako erakusketa da hain zuzen, egunotan Aginagako Eliza Zaharrean aurkituko duzuen. Adi, igandean amaituko baita erakusketa.

2013an, Aginagako San Praixku jaietan izan ziren hiru egunez. Bizitakoak, ikusitakoak eta sentitutakoak islatu zituz-

ten atlas honetan. Orduko hartan Mixel Etxekopar musikariak eskaini zizkigun azalpenak ekarri ditugu gogora, orduan bezain balekoak direlako egungo erakusketaren nondik norakoak azaltzeko.

NOAUA! Aginaga ageri da Euskal Herriko Atlas Geopoetikoaren lehen liburukian. Aginagan egin zenuten egonaldiaz zer nolako oroitzapena duzu?

Mixel Etxekopar. Oroitzapen ezinago gozoak atxiki ditugu, zeren auzo-herri hortan egun bereziak ziren, San Praixkuak alegia; eta festa hortan gu ere gonbidatuak ginen, bai ikusle gisa, baita ere aktore gisa. Gisa horrez herria bihotzetik eza-gutu ahal izan dugu, oilasko biltzaileekin musika eginez, argia gabe hasiak eta baserri guzietan itzulia eginik. Festa-ko egitarauan ere sartzen zen gure emanaldia, eta auzotarrak

hor ziren, haien, zuen herria ikusteko gure begien irazkitik. Bestalde sumatzen ez genuen mundu bat ere dabil Aginagan, hau da Oria, urezko zubia, urezko bidea, eta ala batean horren deskubritzeko ohorea izan genuen, ez baita guti!

Tokian tokiko argazkiak, soinuak eta hitzak batu zenituzten atlas honetan. Zein da Aginagak duen bereizgarri nagusia?

Aginagarek duen bereizgarri nagusia iduri zait, hein batean, ez direla usurbildarrak! Nortasuna sendi dugu auzoan, aginagarra ez dela txit usurbildar-

"HITZAK, SOINUAK ETA ARGAZKIAK DIRA ATLAS GEOPOETIKOAREN OSAGAI NAGUSIAK"

rra. Orogen buru nabaritu dugu badela bizia han bertan, eta herritarrek, auzotarrek emaiten diotela. Izan dela bizi bat ere, aldatu dena oso, Oria ondoko aktibitateak, ontziola, laborantza, arrantza; baina jendea jende, gaur ere aginarra aginar alafede. Guretzat ere gozotasun berezi bat, euskara kasik denen ahotan dabilela, eta ez dakienak ere jendarte horren barne dela, ez kanpotar senditzen.

Gurea da une bateko "argazkia", eta ura Oriara doan bezala jadanik historia dela, guk gatibatu une eta gune horiek iheskor direla, Alejandro Tapia margolaria lekuko.



Jurgi Ekiza.

Jurgi Ekiza, maiatzaren 8an Eliza Zaharrean

Jurgi Ekiza Willis Drummond-eko kantariak taldearen ete-naldi mugagabea aprobetxatu du bere bakarkako bigarren lana plazaratzeko: 'Argitzala'. Ostiral honetan, Aginagako Eliza Zaharrean ari-tuko da. 19:00etan hasiko da kontzertua eta sarrerak usurbil-kultura.eus web orrialdean eskura daitezke. Prezioa: 8 euro.



Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak antolatutako bisita gidatua greba egunen eremu nagusietatik igaro zen.

Ehun batasun eta elkartasun egun

Langileak ahaldundu zituen greba, helburu guztiak bete ez arren, haien esanetan "beharrezko greba" izan zen Michelingo langileek 1976an ehun egunez egindakoa. 50 urte bete diren honetan, hainbat oroimen ekimen antolatzen ari dira. Berriki bisita gidatua egin zuten.

ARITZ LASARTE

50 urte bete dira, "eskubide eta askatasunen aldeko" nahiz "multinazional baten indarraren aurkako borroka" gisa definitutako Michelingo langileen ehun eguneko greba gogoangarri hartatik. 1976ko otsailaren 16tik maiatzera arte luzatutako deialditik mende erdia bete den honetan, garai hura bizi izandakoak oroitu, omendu eta belaualdi berriei orduan jazotakoa helarazteko talde bat sortu eta hainbat ekintza egiten ari dira azkenaldian Lasarte-Orian. Usurbilen kokaturiko lantegia izanik, aurrerago, udalerrir honetan ere ekimenik egiteko asmotan badira. Testuinguru horretan, berriki Lasarte-Oriako Gazte Asanbladak (LOGA) bisita gidatu berezia antolatu zuten haien Gazte Egunaren baitan. Ehun eguneko greba

haren Lasarteko eskenatoki nagusietan barrena bidaiatu zuten parte hartzaileek. Pozarren eta esker onez hartu zuten bertan ziren langile ohiek, ekimena bera.

Duintasunaren defentsan

Garai hura bizitako hainbat lagunek hartu zuten hitza ibilaldian zehar. Ziotenez, xedea ez zen grebak hainbeste denbora irautea, "Michelinekin negoziatzea baizik". Beste kontu bat zen, garai hartako enpresaren zuzendaritzak borondaterik bazuen edo ez.

"LANGILEON BORROKAN JAUZI HANDI GISA DEFINITU ZUTEN GREBA"

"Negoziatzea umiliatzea zen haientzat, gure gainetik zuden. Langileek morroiak izan behar zuten. Greba hasitakoan, segituan kaleratu gintuzten gutako asko".

Orduko testuingurua kontuan hartzeak berebiziko garrantzia du eta bisita gidatu hartan azaldu moduan, 3.500 bat langile zituen garai hartan Michelinek. Ondorioz, "eragin handia izan zuen grebak herri osoan". Franco hil berria zen, eraldaketaren ametsa bizi asko zegoen garaian, "langileon borrokan jauzi handi" gisa

"ISILPEKO BILERAK EGIN GENITUEN USURBILGO ELIZAN, HAN PRESTATU GENUEN"

definitu zuten, urte batzuk lehenago eginikoetatik eratorritako greba hau.

Hainbeste langileek ehun eguneko lanuztea egitearen dimentsioa ulertzeko, adierazi zuten, "enpresa barruan zegoen esplotazio eredu oso bortitza", kontrol zorrotzean oinarriturikoa azaldu behar da. "Makina bakoitzak markatzen zuen ekoizpen mota. Horren arabera sortzen zen gutxieneko soldata bat. Esplotazio makineria bat zen". Horren bueltan, eraikia zuen "sistema zirkularra" ekarri zuten gogora. "Langileen atxikimenduak haienganatzeko" hainbat elementu zituen Michelinek; kooperatiba, Luzuriagarekin eta Cementos Rezolarekin batera langileen seme-alabentzat Añorgan irekitako eskola...", aipatu zituzten adibide gisa.

"Ezinegon handia zegoen" eta langile ohiek gogorarazi moduan, greba aski zela adierazi eta haien duintasuna defendatzeko baliatu zuten. 1976ko otsailaren 16an hasi zuten greba, "28 orduz fabrikari itxialdia" egin ostean. Tarte horretan, guardia zibilak irtenarazi arte, hamasei orduko asanblada egin zuten tailer mekanikoetako batean, "gerora, grebari eustea lagundu zuena". Izan ere, aurrez ondo baino hobeto prestatutako greba izan zela oroitarazi zuten. "Isilpeko bilerak egin genituen Usurbilgo elizan, han prestatu genuen". Ingaruko herrietako elizak eta txokoak baliatzen zituzten, ahoz aho zabalduak asanbladak egiteko. "Imajinatzen duzue mila langiletik gora Alkizako asanblada batean?". Hala egin zuten, handik irtendakoan polizia zain izan arren.

Hainbat batzordeetan antolatu ziren. Grebaren "zero gunea" zen egungo kiroldedia, garai hartan Michelingo jantokia zena, biltzeko gunea hain zuzen. Bertan egindako asanbladetatik "antolatzen zen guztia". Bertan egiten zuten

grebaren jarraipena, ekimenen prestaketa lanak, "normalean manifestazio batekin amaitzen zen". Hainbat enpresa edota gizarte eragileekin hartuemanetan izan ziren. Bitartekari bila ere aritu behar izan zuten. "Estatuko instrumentuak" baliatu behar izan zituzten. Hala, frankismo garaiko "Sindikatu Bertikalean" ordezkari izan zuten haien borroka sendotzeko. Horri esker, "asanblada asko legezkatzea lortu genuen". Horrez gain, Rodolfo Martín Villa orduko Espainiako Gobernuako barne ministroarekin bildu ziren ordezkari sindikalak. Izan ere, "negoziatu nahi genuen. Enpresak bagenekien ez zuela nahi. Aitzakia gisa baliatzen zuten esanez, greba legez kanpoko zela".

Etengabeko errepresioa

Gogor jazarri zituzten langileak. Horretarako, "gera zikin mediatikoa baliatu zuten langileen artean zalantzak sortzeko" eta enpresarien alde lerrotatzen zen polizia, "errepresioarekin langileen batasuna zulatu eta greba hausteko". Grebalariekin aurkako errepresioak eszenatoki nagusi bat izan zuten Lasarte-Orian bertan; Udaletxe zaharreko orduko guardia zibilaren kuartela. Hainbat langile atxilotu zituzten. Haietako baten lekukotzaren arabera, "lantokitik irteterakoan atxilotu eta jeep batean" sartu eta "mendirantz eramanez ninduten". Handik udaletxe zaharreko kuartelera. Halere, erabat lasai zegoela azaldu zuten. Emakume sindikalista bat buru zuten langileen manifestazioa sartu zen bertaraino. Halakoak gehiagotan ere gertatu ziren. Erresistentzia kutxarako laguntza biltzen aritu ziren emakumeak ere atxilotu zituzten. Milaka pertsonadun manifestazioa egin zuten haiek aske uztea eskatzeko. "Beste lau emakume atxilotu zituzten. Poliziaren furgonetan izan zituzten hamabi orduz handik ateratu gabe.



Michelingo grebalarietako bat bisita gidatuan, orduko bizipenei buruzko liburua eskuartean duela.

Epaile militarren aurrera eramanez, atxilotzeko zergatirik ez zegoela erabaki eta aske utzi zituzten".

Greba amaierara arte iraun zuten errepresioak. Barrutik borrokan segitzeko, ehun egunen zikloa amaitu eta lantokira itzultzea erabaki behar zuten asanblada egitea ere debekatu zieten. Hedabide baten bidez jakin zuten enpresak langile guztiak kaleratuko zituela. Herriak eta erakundeek "arbuia zuten lantegiko buruen jarrera krudela". Langileak berriz onartzeko "elkarrizketa pertsonalak egiten zituzten, galdeketa polizialen modukoak ziren". Elkarrizketon hitzorduak iragartzeko ere hedabide bat baliatu zuten enpresako zuzendaritzak. "Izenak hartu eta deituko gintuztela" adierazi zieten. Ondorioz, grebak ehun egun baino gehiago iraun zuten batentzat baino gehiagorentzat.

"EMAKUMEEN PARTE HARTZEA EZINBESTEKOA IZAN ZEN GREBA EGUNETAN"

Emakume borrokalariak

Ehun eguneko greba hartan, ia beti isilarazitako emakumeen borroka ere gogora ekarri eta goraiatu zuten. Garai hartan oraindik, gizonzuek aitortutako adina eskubide izan gabe, ezinbestekoak izan ziren aurrekari gabeko greba deialdi hartan. "Emakumeen parte hartzea ezinbestekoa izan zen erresistentzia kutxarako laguntza jasotzeko, izpiritu kolektiboa mantentzeko. 3.000 lagun egin zuten greba bat ezinezkoa litzateke kohesio hori gabe". Lasarte barruan, "emakumeen mugimenduaren lehen kimu" gisa definitu zuten bisita gidatuan zehar, borroka honek emakumeak izandako parte hartzea. Batetik, erabaki ezberdinak bozkatzeko asanblada propioak galdegin zituzten. Denen artean sortutako erresistentzia kutxarako "10 pezetako bonuak

"DENOK BAT EGINIK GEUNDEN. LANGILEEN BATASUNA ZEN GARRANTZITSUENA"

saltzen aritu ziren Gipuzkoan eta Nafarroan. Jazartuak izan ziren zenbait tokitan", atxilotuak lehen aipatu moduan.

Garaiko testuinguruak ere eragin zuten haien borrokan. Greba betean zirela jazo ziren Gasteizko martxoaren 3ko langileen erahilketak. Bestalde, "Portugalgo Krabelinen Iraultzakasko lagundu zigun", baita Vietnamgo gerrak ere. "Vietnamek hornitzen zuten kautxuarekin lantegia". Halere, "greba luze, gogor bezain eraginkorra" ehun egunez eusteko gakoak argi utzi zituzten; langileen batasuna eta elkartasuna. "Ez zegoen ñabardura txikiena gure artean, kanpoko protagonismorik ez zen. Denok bat eginik geunden. Guretzat langileen batasuna zen garrantzitsua".

Elkartasuna ere agerikoa zen, grebalariekin bueltan eraikitako babes sareari esker. Haietaz janariz hornitzeko azokak egiten zituzten, kaleratuak eskatzeko plataforma ere lanean zuten, erresistentzia kutxa bat sortzen aritu ziren... "Nola liteke ehun egunez erresistentziari eutsi izana? Bagenekielako irabazi egingo genuela".



Jose Manzanok eta Jose Ramon Goenagak gidatzen dute senior nesken taldea.



Argazkian, senior mutilen taldeko partaideak. EKHI MANTEROLA

"Hurrengo denboraldirako ilusio handia dugu"

JOSE MANZANO ETA AITOR SANTOS USURBIL KIROL ELKARTEKO ENTRENATZAILEAK

Lehena senior mailako nesken entrenatzailea da, eta bigarrena mutilena. Helburu desberdinak zituzten arren, senior mailako bi taldeek helburuak lortu dituztela uste dute entrenatzaileek.

ASIER GONZALEZ DE SANPEDRO Nola joan da denboraldia?

Jose Manzano (J.M.): Liga oso lehiatuta egon da. Partida guztietan lehiatu dugu eta batzuk gol batengatik edo bi golengatik galdu ditugu. Txapelketa honetan esperientzia falta nabaritu dugu, txapelketa talde gazteena baikinen. Esperientzia falta zitzaigun partidetan. Jokalari garrantzitsuen lesioekin ere ez dugu zorterik izan.

Aitor Santos (A.S.): Denboraldia duela bi aste bukatu genuen. Abuztu bukaeran hasi ginen jolasten, eta oso luzea egin zaigu. Txapelketa exijentea da.

Zein izan dira aurtengo helburuak?

J.M.: Klubaren helburua nesken senior mailako taldea ateratzea zen. Zuzendaritza-koek niri deitu ninduten taldea entrenatzeko. Zortzi jokalarirekin hasi ginen, eta beste talde batzuetako jokalaria

bilatu behar izan genituen lehiatu ahal izateko. Urnieta-ko lau jokalaririk etorri ziren, eta haiei esker jolastu aha izan dugu. Helburu hori lortu genuen, eta garrantzitsuena zen. Entrenamenduetako asistentzia eta horietan lan egiteko helburua ere bete dugu. Gainera, giro oso onarekin.

A.S.: Helburua nazioko lehenengo mailan mantentzea zen, iazko denboraldian igo baikinen maila horretara. Helburua behar bezala lortu genuen, txapelketa bukatzeko hiru jardunaldi falta zirenean.

"GIRO ONA DAGO, ETA HORI OSO GARRANTZITSUA DA KLUBAK ONDO FUNTZIONATU DEZAN"

JOSE MANZANO ENTRENATZAILEA

Zein erronka dituzue hurrengo denboraldirako?

J.M.: Hurrengo denboraldirako helburuez hitz egiteko oso goiz da oraindik. Nik ez dakit entrenatzaile lanetan jarraituko dudana, ezta zenbat jokalaririk jarraituko duten ere.

A.S.: Hurrengo denboraldirako ilusio handia dugu. Harrobiko jokalariek lehen taldean jolastu dezakete, aldaketa dator zuzendaritzan eta helburua maila mantentzea izango da, aurtengo lortu dugun esperientziari esker.

"TXAPELKETA BUKATZEKO HIRU JARDUNALDI FALTAN BETE GENUEN HELBURUA"

AITOR SANTOS ENTRENATZAILEA

Nola ikusten duzu kluba?

J.M.: Zuzendaritza lan ona egiten ari da klubeko talde guztiek lehiatu dezaten. Giro ona dago talde guztietan, eta hori oso garrantzitsua da klubak ondo funtzionatu dezan. **A.S.:** Herriko gazteen artean eskubaloia sustatzen duen kluba da. Horrek urte askoz jarraikortasuna izateko aukera eskaintzen du. Horretarako, harmailak beteta ikusi behar dira, eta herria animatzen denez, taldea dena ematera bultzatzen du.

Nesken taldea

Izaro Lopez, Alaitz Olasagasti, Libe Garcia de Eulate, Julene Herrador, Nagore Lertxundi, Maialen Sanchez, Uxue Alustiza, Naiara Rebelo, Naia Pacheco, Haizea Lekuona, Adriana Segurado eta Izaro Arruti.

Entrenatzaileak: Jose Manzano eta Jose Ramon Goenaga.

Mutilen taldea

Amets Aburruza, Iker Orueza-bal, Aner Nieto, Iker Gavilan, Axular Rekondo, Julen Begiristain, Mikel eta Aitor Villafafila, Aimar Vazquez, Enaitz Rekondo, Aitor Olasagasti, Iker Nazabal, Manex Irazabal, Gorka Arroyo, Oier Eleta eta Hamadi, Mohamed Dah Ould Sidi.

Entrenatzaileak: Aitor Santos, Julen Nazabal eta Xabier Iku-tza.



Maiatzaren 14tik 17ra jokatuko dute txapelketa, Iruñean.

Kadete mutilen taldea, Espainiako txapelketara begira

Euskadiko txapelketan hirugarren postuan sailkatu ostean, Espainiako txapelketa jokatu du Usurbil KEko kadete mutilen taldeak.

Usurbil K.E.-ren kadete mutilen taldea une gozo askoa bizitzen ari da azkenaldian. Pasa den asteburuan, Euskadiko txapelketa jokatu zuten Barakaldon (Bizkaia). Usurbil K.E.-tik berri eman duten moduan, hirugarren postuan sailkatu da eta "Estatuko 24 onenen artean" da.

Es kubaloi taldeen bilgunitik jakinarazi dutenez, Espainiako txapelketa jokatu du kadete mutilen eskubaloi taldeak. Txapelketa horren zortzi sektore jokatu dira maiatzaren 14tik 17ra, horietako bat Nafarroako hiriburuan, Iruñean, hilaren 15etik 17ra.

Datorren 2026-27 denboraldian Euskal Ligan jolasteko fasea jolastuko du lehenago kadete mutilen taldeak Oiar-do kiroldegian.

Euskal Liga Oiar-do kiroldegian

Maiatzak 8, ostirala

- 18:00 Usurbil-Corazonistas
- 19:45 Muskiz-Tolosa

Maiatzak 9, larunbata

- 10:30 Tolosa-Usurbil
- 12:15 Muskiz-Corazonistas

Maiatzak 10, igandea

- 10:30 Corazonistas-Tolosa
- 12:15 Usurbil-Muskiz

Espainiako Txapelketa Iruñean

Maiatzak 15, ostirala

Anaitasuna A-Monsolar Maristas Barça-Usurbil K.E.

Maiatzak 16, larunbata

Barça-Monsolar Maristas Anaitasuna A-Usurbil K.E.

Maiatzak 17, igandea

Monsolar Maristas-Usurbil K.E. Anaitasuna A-Barça



Pagazpe maiatzaren 17an murgilduko da Herriarteko txapelketan.

Usurbil, Herriarteko Txapelketari ekiteko prest

Usurbildarrak prest dira Gipuzkoako Herriarteko Txapelketa hasteko. Iragan astean, taldeko argazkia atera zuten frontoian. Maiatzaren 17ko asteburuan murgilduko da udalerrri hau lehia horretan, final zortzirenetan. Joaneke neurketa jokatu du Eibar edo Andoainen kontra, herri horietako batean. Asteburu honetan argituko da lehen neurketaren jokalekua eta aurkaria nor izango den.

Aurkari horrekin, itzulerako partida astebete geroago, hilaren 24ko asteburuan jokatuko da Usurbilen.

Fase hau gaindituz gero, final laurdenetarako sailkatuko da Usurbil. Finala, ekainaren 28an jokatu da. Herri ordezkariak osatuko dutenak honako hauek izango dira:

Pagazpeko ordezkariak Kadeteak:

Ekain Alejo, Markel Alejo.

Gazteak:

Aimar Alejo, Enaitz Errasti.

Nagusiak:

Xabi Santxo, Iñigo Ibargoien.

Aurtengo Itzulia Women ere Usurbildik igaroko da

Maiatzaren 15etik 17ra jokatuko den txirindularitza probaren azken etapak Usurbil zeharkatuko du. Maiatzaren 17koak Donostia izango du irteera eta helmuga. N634 errepidetik barrena helduko da tropela Donostia aldetik gure artera. Errepide beretik Usurbil eta Aginaga zeharkatu dute Mendizorotz aldera igo aurretik.

Usurbilgo Pilota Txapelketa datorren astean hasiko da

Usurbilgo LIII. esku pilota txapelketa maiatzaren 16an hasi eta Usurbilgo jaietan amaituko da, Santixabel egunean. "Nagusien mailan, Xabi Santxo herritarra lehiatuko da Julen Urruzolarekin batera (iazko bikote garailea)". Gazteen mailan, Aiert Aburuza-Aimar Alejo bikoteak ordezkatu du Pagazpe taldea.

ANDATZA TABERNA

EGUNEKO MENUA
ASTEBURUKO MENUA
KARTA
RAZIOAK
OGITARTEKOAK

8:00 - 21:30 Asteartea eta asteazkena
8:00 - 22:30 Osteguna eta igandea
8:00 - 23:30 Ostirala eta larunbata

Kaleazar Auzoa 12, 0B, USURBIL Tel 943 73 20 27

ARTZABAL

BASERRIA · JAIETXEA

www.artzabaljartetxea.com

·EGUNEKO MENUA
·KARTA
·RAZIOAK
·HANBURGESAK
·BOKATAK

943 36 91 39

Ipuin kontaketak eta solasaldiak udal liburutegian

Uda aurretik antolaturiko azken ekintzen berri eman du Sutegi udal liburutegiak:

Udaberria liburutegian

Maiatzak 11, astelehena

- 18:00 Ipuin kontaketa, Mireia Delgadoren eskutik.
- Nori zuzendua: 6 urtetik gorako haurrentzat.
- Iraupena: ordu bat.

Maiatzak 23, larunbata

- 11:30 Ana Merinok bideraturiko idazketa tailerra (gaztelaniaz).
- Iraupena: ordu eta erdi.

Ekainak 2, asteartea

- 18:30 Alaine Agirrek bideraturiko solasaldia Karmele



Ana Merinok idazketa tailer bat eskainiko du maiatzaren 23an.

Mitxelenaren "Zoriona, edo antzeko zerbait" liburuaren bueltan. "Sutegi Liburutegian jada eskuragarri daude aipatu liburuaren hainbat ale, saioan parte hartzeko liburua aldeztu aurretik irakurtzea komeni baita".

Aginaga, Ipar Euskal Herriarekin bat

Maiatzaren 10era arte

- "Züek Heben: Euskal Herriko Atlas Geopoetikoa" erakusketa. Ordutegia: ostiralera arte 17:30-19:30 artean eta larunbat eta igandean 11:00-13:00 artean. Zehaztasunak: "Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erretratu bat".

Maiatzak 8, ostirala

- 19:00 Jurgi Ekizaren "Argitzala" emanaldia. "Kanta intimo eta apainduen arteko nahasketan datza ikuskizunak, abesti berri zein bere ibilbideko kanten moldaketa egiten duelarik".
- Sarrerak: 8 eurotan Aginaga Arraten eta usurbilkultura.eus webgunean.
- Antolatzailea: Eliza Zaharra Kulturgunea.

San Ixidro eguneko egitaraua oparo dator

Maiatzak 15, ostirala

- 10:00 Esnadeia herrian zehar Ostolaza eta Larrañaga trikitilariekin.
- 11:30 Hamaiketako herrikoia plazan.
- 12:00 Bertsolariak: Ane Labaka eta Beñat Gaztelumendi.
- 12:30 Giza proba binaka: Jurgi Mendiluze, Imanol Zaldúa, Gabriel Sarasola eta Iñaki Portularrume tiralarien eskutik.
- 14:30 Bertso-trikiti bazkaria Patri jatetxean (bazkarirako txartelak salgai Patrin eta Alkartasunan).
- Antolatzailea: Alkartasuna Usurbilgo Baseritarren Kooperatiba.
- Laguntzailea: Usurbilgo Udala.

Eguna eta gaua

Beginatu paisaia honi eta markatu egunetik gauera aldatu den guztia. Desagertu diren gauzak alde batera utzita, zer agertu da gauean? Bederen, zortzi elementu dira.

GauEKO DOMINOa

Bete itzazu zuriuneak domino zati honek zentzua izan dezan. Batez ere gauari lotuta ageri ohi diren sei gauza sartu behar dituzu fitxetan, komeni denean:

ilargia izarra armiarma planeta teleskopioa saguzarra

GauEKO

Izaki mitologiko liluragarri bat da GauEko, baina jendeak beldur handia dio, iluntasunean bizi delako eta gauz hura baino nagusiagorik ez dagoelako. Dena esan behar bada, zehazki nolako den ez daki inork. Zure ustez, zer forma du? Marraztu ezazu laukian.

Bete itzazu sudok honen hutsuneak GAUEKO hitza osatzen duten hizkiak erabiliz (G, A, U, E, K eta O). Kontuan hartu hizki bakoitzak behin agertu behar duela letra, zutabe eta area bakoitzeko.

Mezu gordea

Eman marrazkitxo bakoitzari dagokion hizkia, eta gauerekin zenikuria duen esaera zahar bat agertuko zaizu. Horretarako, erabili hizki-marrazki alfabetoa. Bide batez, berehala asmatuko duzun esaera hori goiko marrazkiari lotuta dago, eta polit-polit margotu behar duzu.

HIZKI-MARRAZKI ALFABETOA

'Plazan Bazan' 12/13. orrialdeetako denborapasen soluzioak.

MERKATU TXIKIA

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUAN

Usurbilgo hiru gazte alokairuko etxe baten bila gabiltza. Etxebizitzaren inguruko edozein informazio izanez gero, eskertuko genizueke gurekin harremanetan jartzea: 688 643 044

Usurbilen edo inguruetan alokairuan gela edo etxe txiki baten bila nabil. Pertsona bakarra eta diru sarrera finkoekin. 943498917 (9:30-13:30).

25 urteko gazte bat naiz eta inguruko enpresa batean lanean nago. Logela bat alokatu nahiko nuke. 647594529

Gela edo apartamentu txiki bat alokatu nahi dut. 24 urte, Isaac. 673607486.

Alokairuan hartzeko etxe edo logela baten bila nabil. 618 773 004.

EROSI

IRAGARKIA JARTZEKO:

NOAUA:IKO BULEGOTIK PASA

ERREDAKZIOA@NOAUA.EUS

943 360 321

Usurbilgo erdigunean etxe bat erosi nahiko nuke. Ahal dela bi logelakoa. 615007418

GARAJEAK

SALMENTA, GARAJEAK

Garajea salgai Etxealdian. 14 metro koadro. 685707278

Garaje itxia salgai herri sarreran. 646 601 947 (18:00etatik aurrera).

LANPOSTUAK

- Asteleheneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
- Iragarki berriak sartu ahala, zaharrak ezabatuko ditugu.
- NOAUAK ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

LAN ESKAINTZAK

Aginaga sagardotegian asteburuetarako zerbitzari bila gabiltza: 943 37 06 68 / info@aginagahotela.com

Andatza taberna sukaldari laguntzaile bila dabil. 627841927.

LANPOSTUAK

LAN ESKAERAK

Lan bila nabil. Edozein lanetan aritzeko prest. 611 22 94 65.

Lan bila nabil. Lanerako gogotsu. 677 257 929.

Garbiketa lanak, haur zein pertsona helduen zaintza lanetan aritzeko lan bila dabilen neska bat naiz. 604302785

Garbiketa arloan edo pertsona helduak zaintzeko prest. Titulu sozio-sanitarioa daukat. 627879720.

Externa zein interna bezala lan egiteko prest. Edo garbiketa lanak egiteko. 676 282 206.

Sukaldeko laguntzaile lanetan edo pertsona helduak zaintzeko lan bila nabil. 688676540

BESTELAKOAK

Reiki saioak eskaintzen ditut. Harremanetarako: 677086147.

Klase partikularrak emateko prest DBH 1-3 arteko nahiz LH-ko ikasleei. 628 57 28 04.



HILDAKOEN BERRI EMATEKO:

943 360 321 edo erredakzioa@noaua.eus

- ▶ Asteleheneko 17:00ak arte jasotako emango ditugu argitaratu.
- ▶ Gainontzeak, hurrengo asteko astekarian.

HILDAKOAK



Jose Angel Aguinaga Ibarгойen
Maiatzaren 1ean hil zen,
68 urterekin.

Eskubaloia Oiardon

Maiatzak 6, asteazkena

19:30 Jubenil neskak:

-Usurbil K.E.

-Lana Aloña Mendi K.E.

Maiatzak 9, larunbata

18:30 Kadete neskak B:

-Dikar Bergara K.E.

-Bilagun Usurbil K.E.

TELEFONO INTERESGARRIAK

Udala	943 371 951	Gure Pakea Egoitza	688 836 728
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Gure Elkartea Egoitza	686 554 145
Udaltzaingoa	943 361 112	Arrate Zahar Egoitza	692 898 492
Egurtzegi	943 300 563	Salbatore Parrokia	943 361 239
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Bake Epaitegia	943 372 336	Anbulategia	943 362 013
Oiardo Kiroldedia	943 372 498	Amenabar botika	943 376 076
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Iturralde botika	943 363 395
Potxoenea	943 371 999	DYA	943 464 622
Kzgunea	943 023 684	Gurutze Gorria	943 272 222
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Emergentziak	112
Etumeta AEK euskaltegia	607 609 379	Genero-indarkeria, arreta	016
Emakumeen Etxea	943 377 112	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163

Urte askotarako!

Zorion itzazu senitartekoak eta lagunak:

Posta elektronikoa

Mezua bidali erredakzioa@noaua.eus helbidera, eta idatzi: izen-abizenak, urtebetetze-eguna eta nahi duzun testua.

Bulegoa

Etor zaituz gure bulegora edo telefonoz deitu: 943 360 321.

Oharra:

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion-agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Asteleheneko 17:00ak arte jasotako zorion agurrak bakarrik iragarriko ditugu.

Hortik aurrera jasotakoak hurrengo astean argitaratuko ditugu.

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTELEHEN EGUERDIA BAINO LEHEN. Tel.: 943 360 321 / erredakzioa@noaua.eus

OSTIRALA 08

AGINAGA "Züek heben" erakusketa

Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erretratu bat.
17:30-19:30 Eliza Zaharrear.

AGINAGA Jurgi Ekizaren kontzertua

Willis Drummond-eko kantaria eta gitarristak bere bakarkako bigarren diskoa aurkeztuko du zuzenean: 'Argitzala'.
19:00 Eliza Zaharrear.

LARUNBATA 09

AGINAGA "Züek heben" erakusketa

Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erretratu bat.
11:00-13:00 Eliza Zaharrear.

IGANDEA 10

USURBIL Nahia Intxaustiren poema errezitaldi musikatua

"Zainetatik Zilarra" poema bilduma aurkeztuko du, Iñurri elkartekoekin batera.
18:30 Sutegin.

AGINAGA "Züek heben" erakusketa

Euskal Herriko paisaia humano eta kulturalaren erretratu bat.
11:00-13:00 Eliza Zaharrear.



Nahia Intxausti martxoan plazaratu zuen bere lehen poesia liburua.

Nahia Intxaustiren errezitaldi musikatua

Nahia Intxausti Intxausti (Larsarte-Oria) pedagogian doktorea da. Irakaslea eta ikertzailea da Donostiako Hezkuntza, Filosofia eta Antropologiako Fakultatean (EHU). Zainetatik zilarra izeneko poema liburua plazaratu du Pamielarekin eta liburuan oinarritutako errezitaldi bat eskainiko du igandean, Sutegin.

Zainetatik zilarra liburuak Ernestina de Champourcin 35. poesia lehiaketako Euskarazko saria eskuratu zuen.

Iñurri elkarteko kide ere bada Nahia Intxausti eta Sutegiko saioan, poemarioa "zuzenekora ekarriko dugu musikaz lagunduta. Beste iñurri batzuen laguntzaz, ordubeteko saioa eskainiko dugu", iragarri dutenez. "Animatu iñurritzera!", egin dute gonbita.

Maiatzak 10 igandea

- 18:30, Sutegiko auditorioan.
- Informazio gehiagorako: izaninurri.eus
- Antolatzailea: Iñurri elkartea.

Izaskun Andonegiren hitzaldia Sutegin

"Komunitatetik, heriotzaz" zikloaren baitan, Izaskun Andonegik "Heriotzak gaztetasuna kolpatzen duenean: agur kolektiboak eta komunitatearen babesa" solasaldia eskainiko du ostegun honetan, arratsaldeko 18:00etan Sutegin. Zenbait herrikiderekin batera arituko da.

Bisita gidatuak

Maiatzak 9, larunbata

• 11:00-12:45 Museo Irekia Ainara Azpiazu Aduriz 'Axi' -rekin. "Usurbilen kokatzen den artearekin eta kulturarekin duen harremana azaltzeaz gain, ibilbideko arte-lan garaikide bat azalduko digu bere esperientzia eta ikuspuntutik".

Maiatzak 10, igandea

• 10:00-13:30 Usurbilgo sagardoaren kulturari lotutako bisita gidatua sagastietan barrena eta ondoren, Aialde Berri sagardotegira bisita eta mokadutxo.

Maiatzak 16, larunbata

• 11:00-12:30 Salvatore Elizari bisita, organo erakustaldiarekin (gaztelaraz).

Maiatzak 27, asteazkena

• 10:00-11:00 Zero Zabor bisita gidatua.

Maiatzak 29, ostirala

• 10:00-11:30 Zaintzaren Usurbil bisita gidatua.

Informazioa, erreserbak:

650usurbilbizi.eus





LANBIDE HEZIKETA AURREMATRIKULA

MAIATZAREN 4tik 22ra ARTE

HARTU TXANDA



LANBIDE
ESKOLA
zubietta

PRESENTZIALKI ZENTRUAN

Hartu hitzordua

943 364 600 telefonoan edo QRan.
Astelehenetik ostegunera 8:30-17:00
Ostiraletan 8:30-14:30

ONLINE

www.ikasgunea.euskadi.eus



Ane

ILEAPAINDEGIA

Artzabal

JUBILATUENTZAKO
AUKERARIK
HOBERENA

ARTZABAL BASERRIA 688 75 96 96

OSASUN GIDA

Irati Ibargoien

FISIOTERAPIA - OSASUN ZENTROA

Fisioterapia:

- Fisioterapia aktiboa.
- Teknika aurrerakoiak.
- Emakumearen fisioterapia.

943 53 92 66
623 46 26 58

Osteopatia kraneala

Pertsonak tratatzen ditugu bere osotasunean;
ikuspuntu integral eta holistiko batetik.

irati.ibargoiengmail.com

@irati_ibargoieng_fisioterapia

Puntapax kalea 6B, behea ezk. Usurbil 20170

www.iratibargoieng.com



Ibaiondo

- 30 urte zuen osasuna zaintzen.
- Esperientzia eta profesionaltasuna.
- Diagnostikoan adituak.

Ordua hartzeko: 943-37 03 06

Ola Kalea, 12 - behea, ezkerra
20160 Lasarte-Oria



- Dosifikazio sistema pertsonalizatua
- Dermofarmazia
- Produktu homeopatikokoak
- Maisu formulak

Iturraldebotika

Tomas Iturralde botika
33/22 PEZ.

Borda berri 1, 20170 USURBIL 943 36 33 95

Oinutsik

PODOLOGIA ETA POSTUROLOGIA

943 11 09 54

etorri zaitetz zure oinen eta posturaren
azterketa bat egitera!

sustraitu osasuna oinetatik

Usurbilgo Hortz Klinika

Zure irribarrea,
gure lehentasuna



943 370 878 606 793 750

Kale Nagusia 10, 1º C4 · 20170 Usurbil, Gipuzkoa



Osakidetzarekin
hitzarmena

zenta

ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

Puntako teknologia zure
autonomiaren zerbitzura

- Laguntza produktuen salmenta eta alokairua.
- Etkez-etxeko zerbitzu tekniko espezializatua.
- Etxebizitzaren egokitzapena.

www.zenta.es



Errekalde 59, Donostia 943 105 205



MABIOK

FISIOTERAPIA AVANZADA AURRERATUA

Ekografietan, terapia
inbasiboetan eta eskuzko
terapietan adituak

- Lesio erreadaptazioa
- Diatermia
- Ariketa terapeutikoa



USURBIL OPTIKA

PROGRESIBO,
URRUTIKO
ETA GERTUKO
BIGARREN LENTE
PAREA DOAN!

2x1

943 37 02 69

ZUBIAURRENEA 10, USURBIL usurbiloptika@hotmail.com

C/ Alperroburu kalea, 1. BsB · T. 608 671 925 / 943 372 658
mabiokfisioterapia.com

mabiok_fisioterapia

OSASUN GIDAN PARTE HARTZEKO

747 486 835

publizitatea@noaua.eus